

# Olentzerori buruzko lehen animaziozko filma abian da

*Keinu eta Baleuko ekoiztetxeek bat egin dute egitasmoa aurrera eramateko*

Montse Arregi / Bilbo

2000. urtearekin batera hasiko dira *Keinu eta Baleuko* ekoiztetxeak Olentzeroren inguruko animaziozko lehen film luzea prestatzen. Datorren urteko Gabonetan estreinatu nahiko lukete Euskal Herriko zinema aretoetan. Aurrekontua 200 milioi pezetakoa da.

EGITASMO garrantzitsua da *Keinu eta Baleuko* ekoiztetxeak batu dituenak: Olentzeroren inguruko animaziozko film luzea egitea. Gidoia ia prest dago, eta zuzendaritzaz Juanjo Elordi arduratuko da, azkenengo Lekeitioko Zinema eta Bideo Bileran saritua izan zena. Proiektuaren aurrekontua 200 milioi pezeta ingurukoa da (zortzi milioi libera), eta finantziabideak eta laguntzak bilatzen ari dira ekoizleak.


Gontzal Mendibilek, Keinuko kideak, EGUNKARIARI atzo esan zionez, aspaldi zuten halakorik egiteko gogoak: «Pertsonaiari berotasuna eman nahi diogu, nolabait berreskuratu. Lortu nahiko genuke haurrak aurren *Tarzan* ikustera joan diren moduan datozen Gabonetan *Olentzaro* ikustera joatea zinemara». Euskal Herrian eta kanpoan hedatu

nahiko lukete filma egileek. Hainbat eskolako mila haurren artean inkesta modukoa egin dute *Keinu eta Baleuko* ekoiztetxeek, haiek Olentzerori buruz duten irudia ezagutzeko. «Gehienek irudi goxoaren alde egin dute, Olentzero potolo eta bizardunaren aldekoa», azaldu zuten Mendibilek.

## Pertsonaia nagusiak, plastilinazko figurak

Animaziozko filma egiteko, plastilinazko irudiak erabili dituzte pertsonaia nagusiak irudikatzeko; ordenagailuak eta ohiko teknikek osatuko dute lana.

Istoria berezia kontatuko du filmak. «Olentzero, ume bat eta herrira iristen den zientzilaria izango dira protagonistak. Zientzilariak asmakizun handia ekarriko du, baina natura suntsituko



XOUSE SIMAL

Gontzal Mendibil, atzo, Bilbon, argitaratu berri duen ipuin liburuaren eskuetan: *Olentzaro. Yureken ametsa*.

## GONTZAL MENDIBIL

■ ■ ■ «*Olentzero, ume bat eta natura suntsituko lukeen asmakizuna dakarren zientzilari bat izango dira protagonistak; Olentzerok gordeko du gure altxorra*»

lukeena. Olentzerok gordeko du gure altxorra. Gure zaintzailea eta ilusio banatzailea izango da», aurreratu zuten Keinu ekoiztetxeeko ordezkariak.

Gontzal Mendibilek, bestalde, Olentzero protagonista duen ipuin bat argitaratu berri du, *Olentzaro. Yureken ametsa* izenekoa. Mendibilen testuak eta Gonzalo Azurmendiren argazki ede-

rrak daramatza liburuak. Mendibilen arabera, «Olentzeroren lehen amets errealista» da. Gainera, haragizko pertsonaiekin telebistarako filma ere egin nahiko lukeela adierazi zion. «Pertsonaia berreskuratzeko modua da. Olentzerori berriro bizia

eman nahi diogu, urtero etortzen bada ere», berretsi zuten Gontzal Mendibilek berak atzo.

Ipuinarekin zein animaziozko filmarekin ez dutela Olentzero desmitifikatu nahi azpimarratu zuten Mendibilek. «Mito bihurtu da, baina nolabaiteko goxotasun ikutua erantsi nahi diogu pertsonaiari. Askotan ikusten diren figurek Zeledonon antz handiagoa dute. Guk bestelako ikutua erantsi nahi diogu». Ildo beretik, 50.000 gutun argitaratu dituzte haurrek Olentzerori idatz diezaiotzen.



JOXE LACALLE

**Iruñeko Udalak antolatutako 1999ko lehiaketetako sariak banatu dituzte.** Iruñea Artista Gazteak, Euskarazko Egile Berriak, Haurrentzako Eguberri Postalak eta San Fermin Kazetaritza lehiaketetako 1999ko sariak banatu zituzten atzo Iruñean. Udaletxean izan ziren saridunak, euren senideak, Yolanda Barcina alkatea eta udalbatza.



## HONDARRIBIA

**Abenduak 25 eta Urtarrilak 5**

**Arratsaldeko 7etan  
Gernikako Arbola Plaza (Harresiak)  
JAIOTZA BIZIDUNA.**

**Abenduak 28**

**Arratsaldeko 7,30etan - Zuloaga Etxea.  
JULIAN LEONen KONTZERTUA  
"Sefardien legatua"**



**HONDARRIBIKO UDALA  
Kultura Saila**